



2015eko azaroaren 27a

Kaixo!

Abenduaren 3an, ostegunean, Euskararen Nazioarteko eguna da eta Irurako Ikastolan urtero bezala, egun hau ospatzeko asmoa dugu.

Horretarako, hainbat ekintza prestatu ditugu aste osoan zehar egiteko eta baita ostegunerako ere.

Astean zehar, ikasleek **HERRIKO DENDA, ELKARTE ETA ERAGILEEKIN** batera euskal abeslari eta musika taldeen izenak asmatuko dituzte.

Abenduaren 3an, berriz, Irurako plazan edo frontoian egingo dugun ekitaldiaren egitaraua honakoa izango da:

- 10:30: Astean zehar asmatutako euskal abeslari eta musika taldeen argazkiekin hormairudia osatuko dugu.
- 15:15: Kalejiran Plazara edo Frontoira (eguraldiaren arabera) joango gara ikasle, irakasle, guraso eta herritarrak.
- 15:30: Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko, pregoia irakurriko dute L.H.6. mailako ikasleek.
- Jarraian **BERTSO HOP ikuskizuna**
- Bukatzeko, **GAZTAIN JATEA** izango dugu guztiontzat.

Etor zaitetze, ondo pasako duzue eta!

EUSKARAZ BIZI TALDEA

**EMAN
BOSTEKOA
EUSKARARI!**